

ERAKUNDE ADIERAZPENA, PSE-EE UDAL TALDEARENA, EZKONTZA HOMOSEXUALAREN ALDE

Gizartean eta politikan egin diren aurrerapenak, gizabanakoek arlo guztietan eskubide berdinak izatearen arloan legezko eta hezkuntzako neurriak aurrera eramateari dagokionez, oso garrantzitsuak izan dira azken urteotan gure herrialdean.

Gay eta lesbianen eskubideen konkistako une nabarmenenetako bat izan zen, dudarik gabe, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza legeztatzea, 2005ean, Jose Luis Rodríguez Zapateroren gobernu sozialistak onartuta. Espainia izan zen, orduan, ezkontza homosexuala legeztatu zuen Europako eta munduko lehen herrialdeetako bat. Gay eta lesbianen eskubideak eta herritar guztien arteko berdintasuna babesteari dagokionez, herrialde aitzindari bihurtu zen, abangoardiakoa. Gaur egun, mundu osoan hamar herrialdetan dago legeztatuta ezkontza homosexuala; eta beste batzuek legeztatzeko asmoa iragarri dute, hala nola Frantziak.

Zapateroren gobernuaren erabaki hura arbuiatu, kondenatu eta iharduki zuen Parlamentuan Alderdi Popularrak. Konstituziokontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztu zioten Konstituzio Auzitegiari, ezkontza homosexualaren legearen aurka; eta errekurtsioa oraindik ebazteke dago. Horrenbestez, Damoklesen ezpata oraindik gainean dute gay eta lesbianek, konstituziokontrakotasuneko errekurtsio gisara. Izan ere, Alderdi Popularreko agintariek irmo eusten diote beren jarrerari, eta nabarmendu dute ez dutela Konstituzio Auzitegiari ezkontza homosexualaren legearen aurka aurkeztutako errekurtsioa bertan behera utziko.

Bien bitartean, nazioartean, beste herrialde batzuek Espainiaren ereduari darraie, adibidez Argentinak; eta politikako nahiz epailetzako hainbat erakunde eta instantzia ezkontza homosexualaren alde agertzen ari dira. Hala egin du Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak, orain-berriki adierazi baitu Konstituzioaren kontrakoa dela ezkontza homosexuala. Eta Europako Parlamentuak Europar Batasuneko Estatu kideei dei egin die, «gay eta lesbianeiei ahalbidetu diezaietela erakunde juridikoez baliatzea, hala nola bizikidetzaz, batze erregistratuaz, edo ezkontzaz».

Joan den maiatzaren 17an onartutako ebazpenean, Homofobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren esparruan, Europako Parlamentuak adierazi zuen Europar Batasunak eredu izan behar duela homofobiaren aurkako borrokan, eta Europako herrialdeek ziurtatu behar dutela gay, lesbiana, bisexual eta transexualen komunitatea (LGBT) babestuta egongo dela indarkeria homofoboaren kontra, dela hitzezko indarkeria, dela indarkeria fisikoa. Era berean, eskatzen du sexu bereko bikoteek izan dezatela gainerako bikoteen status juridiko eta errespetu bera izan dezatela, eskubide guztiak onartuta, ezkontzarena barne. Europako Parlamentuak

deitoratzen du Europar Batasunean oraindik hainbat kasutan ez direla guztiz babesten homosexualen oinarritzko eskubideak.

Donostiako Udalbatza ere aitzindari da homosexualen eskubideen defentsan eta homofobiaren kontrako borrokan. Horrenbestez, Europako Parlamentuaren ebazpen horri jarraituz, eta ekainaren 28ko Gay Harrotasunaren Egunaren testuinguruan, Donostiako Talde Sozialistak egoki eta beharrezko jotzen dugu Donostiako Udalbatza ezkontza homosexuala onartzearen eta gay, lesbiana nahiz transexualentzako eskubide berdintasunaren alde ager dadin. Orain gozatzen ditugun gizarte eskubide horiek lortzearen demokratikoki eta gizalegez borrokatu dira gizabanako, erakunde eta gizarteko talde asko, eta ezin diegu eskubide horiei uko egin gure Zuzenbideko Estatuan.

Hori dela eta, haxe da PSE-EE udal taldeak UDALBATZARI aurkeztutako

ERAKUNDE ADIERAZPENA

- 1 – Donostiako Udalbatzak berriz adierazten du berdintasun politiken aldeko bere eginbidea. Politika horien alde lan egiten jarraituko du, gertatzen diren homofobia egintza guztiak arbuiztzen, eta gay, lesbiana nahiz transexualen aurkako bereizkeria dakarten egintza guztiak arbuiztzen. Alde horretatik, berriz ere babesten du sexu bereko pertsonen artean ezkontzeko eskubidea, gainerako herritarren eskubidearen pare.**
- 2- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Alderdi Popularrak Diputatuen Kongresuan eta Senatuan duen parlamentari taldeari, bertan behera utz dezala 2005ean onartutako Ezkontza Homosexualaren Legearen aurka aurkeztu zuen konstituziokontraotasuneko errekurtsioa.**

Donostia, 2012ko ekainaren 8a

**Ernesto Gasco
PSE-EEko zinegotzia**